

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko martxoaren 2tik 5erako astea.**

## **I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala 04/03/2019**

- 2019ko otsailaren 20ko ebazpena, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den erregimen orokorreko ikastetxe pribatuetako edo itunpeko mailarik gabeko edo dirulaguntzarik gabeko irakaskuntza arautuko Estatuko X. hitzarmen kolektiboari buruzko Auzitegi Nazionalaren epaia.. **2019-3099 xedapena - 10 or.**

### **Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala 2019/03/06**

- EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratzen, argitaratzen eta gordailatzen den Osakidetza Garbiketa Zerbitzuaren enpresa esleipendunentzako Sektoreko Hitzarmen Bakarraren (Hitzarmenaren kodea: 86002115012003) soldata-taulak onesten dituen erabakia. **1211 xedapena - 4 or.**

### **Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2019/03/08**

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko altzarien merkataritzako sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren 2019ko soldaten berrikuspenak erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000585011981). **5 or.**
- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Likoregintza, ardogintza eta ardo esportazio, botilaratze eta biltegitratzeko Bizkaiko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48001435011981). **22 or.**

## II.- XEDAPEN OROKORRAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

**2019/03/02**

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.**

- **Zigor Kodea.** - 2/2019 Lege Organikoa, martxoaren 1ekoa, zeinaren bidez Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen den, motordun ibilgailuak edo ziklomotorrak gidatzean izan daitekeen zuhurtziagabekeriaren eta istripuaren tokia uzteagatik zigorren inguruan. **2019-2973 xedapena - 4 or.**
- **Jabetza intelektual.** - 2/2019 Legea, martxoaren 1ekoa, zeinaren bidez apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege-dekretua onesten duen Jabetza Intelektualaren Legearen testuategia aldatzen den eta Espainiako ordenamendu juridikora gehitzen diren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/26/UE zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (UE) 2017/1564 zuzentaraua, 2017ko irailaren 13koa. **2019-2974 xedapena - 59 or.**
- **Genero indarkeria.** - 3/2019 Legea, martxoaren 1ekoa, genero indarkeriaren eta emakumearen kontrako bestelako indarkeria moten biktimen seme-alaben umezurtz egoera hobetzeari buruzkoa. **2019-2975 xedapena - 4 or.**

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Esnekien sektorea.** - 95/2019 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, zeinaren bidez ezartzen diren esnekien sektoreko kontratazio-baldintzak eta arautzen den sektoreko ekoizle-erakundeen eta lanbide arteko erakundeen onarpena, eta zeinaren bidez aldatzen diren esnekien sektorean aplikagarriak diren zenbait errege dekretu. **2019-2979 xedapena - 33**
- **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA. - Antolakuntza.** - 102/2019 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, zeinaren bidez Finantza Orekaren Kontseiluaren Agintaritza Makroprudentziala eratzen den, horren araubide juridikoa ezartzen den eta tresna makroprudentzialei buruzko zenbait alderdi garatzen diren. **2019-2980 xedapena - 14 págs.**

**2019/03/05**

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.**

- **Premiazko neurriak.** - 7/2019 Errege Lege-dekretua, martxoaren 1ekoa, etxebizitzaren eta alokairuaren alorreko premiazko neurriari buruzkoa. **2019-3108 xedapena - 18 or.**
- **Gorte Nagusiak.** Desegitea eta hauteskundeetarako deialdia egitea. - 129/2019 Errege Dekretua, martxoaren 4koa, Diputatuen Kongresua eta Senatua desegiteari eta hauteskundeetarako deialdia egiteari buruzkoa. **2019-3109 xedapena - 4 or.**

- **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA. - Ordainketa kontuak.** - ECE/228/2019 agindua, otsailaren 28koa, ordainketa kontu arruntei, ordainketa kontuak lekualdatzeko prozedurei eta konparazioko webguneen eskakizunei buruzkoa. **2019-3113 xedapena - 11 or.**

**2019/03/06**

- **OGASUN MINISTERIOA. - Negutegi efektuko gas fluoratuen gaineko zerga.** - HAC/235/2019 agindua, otsailaren 25ekoa, zeinaren bidez aldatzen den otsailaren 27ko HAP/369/2015 agindua, zeinak onesten baitu "Negutegi efektuko gas fluoratuen operazioak biltzen dituen adierazpena" 586. eredu eta ezartzen baitu hori aurkezteko modua eta prozedura eta aldatzen baititu "Negutegi efektuko gas fluoratuen gaineko zerga. Autolikidazioa" 587. eredu onesten duen eta hori aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituen apirilaren 29ko HAP/685/2014 aginduaren III. eranskinean jasotako zergaren jardura-gakoak. **2019-3185 xedapena - 7 or.**

**2019/03/07**

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak.** - 6/2019 Errege Lege-dekretua, martxoaren 1ekoa, enpleguan eta jardunean emakumeen eta gizonezkoen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriari buruzkoa. **2019-3244 xedapena - 26 or.**
- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Karrera fiskala.** Aldi baterako ezintasuna. - Ebazpena, 2019ko otsailaren 15ekoa, Justizia Administrazioarekiko Harremanen Zuzendaritza Nagusiarena, Karrera Fiskaleko kideen kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasun kasuetako ordainsariei buruzkoa. **2019-3245 xedapena - 3 or.**

## 2019/03/08

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Hezkuntza ez-unibertsitarioa. - 4/2019 Legea,** martxoaren 7koa, hezkuntza ez-unibertsitarioko esparruan irakaskuntzan jarduteko baldintzak hobetzeari buruzkoa. **2019-3307 xedapena - 3 or.**

## E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

## 2019/03/04

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. - HEZKUNTZA SAILA. - OSASUN SAILA. - KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA. - SEGURTASUN SAILA. - 28/2019 DEKRETUA,** otsailaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko den Dekretua. **1153 xedapena - 2 or.**

## 2019/03/05

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA. - AGINDUA,** 2019ko otsailaren 20koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-automobiletan egiten den bidaiarien hiriarteko garraio publikoaren tarifa berriak onartzeko dena. **1179 xedapena - 2 or.**
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. - OSASUN SAILA. - 29/2019 DEKRETUA,** otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzkoa. **1180 xedapena - 17 or.**

## 2019/03/06

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA. - AGINDUA,** 2019ko otsailaren 28koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez bermatzen baita 2019ko martxoaren 8rako deitutako greba orokorrak dirauen bitartean gizarteari eman behar zaizkion ezinbesteko zerbitzuak beteko direla. **1210 xedapena - 26 or.**

**2019/03/07**

- **DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA.** - EBAZPENA, 2019ko otsailaren 26koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, Datu Pertsonalak Babesteko Sarien VII. Edizioaren deialdia egiten duena. **1234 xedapena - 9 or.**

**A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

**B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**2019/03/08**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 127/2019 Foru Agindua, martxoaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 0662/2018 Foru Agindua, abenduaren 28koa. **1391 xedapena - 9 or.**

**E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):**

**Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO, 26 - 48009 BILBAO